OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA
DATA 2026 URR 14
ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA. 1689

ALKATE-DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituta, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Irati Olano Peón: Euskaltegiko irakasle (C1) lanpostua aldi baterako betetzeko langile bat izendatzea (2026ALKO0008)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko Giza baliabide eta Antolaketako teknikaria naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente-zk.:..... 2026ALKO0008
Espedientearen helbidea:..... OÑATI
Gaia:..... Euskaltegiko irakasle (C1 sailkapena) kontratatzea langile laboral modura
Interesduna:..... Irati Olano Peón (NAN: ****885**)

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko irailaren 24ko Alkate-dekretu bitartez (1631 zkia.) Udal Euskaltegiko irakaslearen lanpostu hutsa behin-behinean betetzeko deialdia onartu eta oinarriak argitaratzea erabaki zen. LANBIDEren bitartez izena emateko epea amaituta, 2026ko urriaren 1eko 1644 zenbakiko Alkate-dekretuarekin, berriz, behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratzea erabaki zen. Azken alkate-dekretu horrek xedatu bezala, erreklamazioak jartzeko epea bukatuta, eta erreklamaziorik jaso ez zenez, zerrenda hura behin betikotzat jo eta izendapenari ekin zaio. Aipatu bi alkate-dekretuetan bitarteko funtzionarioa izendatuko zela jasota bazetorren ere, honakoaren bitartez, bidezkoa da hutsa zuzendu eta argitzea lan-kontratudun langilea izango dela Oñatiko Udalak izendatuko duena.

Zerrendaren hurrenkera jarraituta, Irati Olano Peón proposatu da izendatzea lanpostua betetzeko eta hark lan-eskaintza onartu du. Urriaren 13an hasiko da behin-behinean postu berrian lanean, harik eta Oñatiko Udalak lanpostua dagokion eran hornitu arte.

Zuzenbideko oinarriak:

Euskadiko Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 68. artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (EBEP/TREBEP) Legearen testu bateginaren 11. artikuluan diote langile lan-kontratudunak edo langile laboralak administrazio publikoekin idatziz formalizatutako lan-kontratu baten bidez –lan-zuzenbidean aurreikusitako kontratazio-modalitateetako edozeinetan– administrazio publikoentzat ordainsari baten truke zerbitzuak ematen dituztenak direla. Kontratuaren iraupenaren arabera, langileak finkoak, iraupen mugagabekoak edo aldi baterakoak izan daitezkeela ere badiote aipatu legeek. Halaber, langile laboralaren hautaketa berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera egingo dela jasotzen dute.

OÑATI
dabilen herria

Bestalde, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2021 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *"Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinezko beharrizanak betetzeko."*

Hirugarrenik, Langileen Estatutuaren urriaren 23ko 2/2015 legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan jasotzen dituen xedapenak kontuan harturik:

"1. Lan-kontratua mugagabetzat joko da.
Iraupen mugatuko lan-kontratua produkzioaren gorabeherengatik edo langilea ordezteagatik bakarrik egin ahal izango da.
Behin-behinekotasunaren arrazoi justifikatutzat jotzeko, beharrezkoa izango da kontratuan zehaztasunez adieraztea aldi baterako kontratazioaren kausa gaitzailea, kontratua justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura."

Laugarrenik, ikusita 2720/1998 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, iraupen mugatuko kontratuen arloan Langileen Estatutuaren 15. artikulua garatzen duena, bere 4. artikuluan hau dio:

"Era berean, bitarteko kontratua egin ahal izango da lanpostu bat aldi baterako betetzeko, lanpostu hori behin betiko betetzeko hautaketa- edo sustapen-prozesuak dirauen bitartean.

Administrazio publikoek lanpostuak betetzeko egiten dituzten hautaketa-prozesuetan, kontratuen iraupena bat etorriko da prozesu horiek beren araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera irauten duten denborarekin."

Azkenik, 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak laugarren xedapen gehigarrian dioen moduan, sektore publikoko lan-kontratuko langileei aplikatu beharreko araubidean:

"Kontratu mugagabeak eta aldizkako kontratu finkoak egin ahal izango dira administrazio publikoek eta sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeek esleituta dituzten helburuak betetzeko funtsezkoak direnean, aldez aurretik berariaz egiaztatuta.

Ekitaldi bakoitzerako indarrean dagoen Estatuko aurrekontu orokorren legean ezarritako birjartze-tasa alde batera utzi gabe, plaza horiek betetzeko berariazko birjarpen-tasa bat behar bada, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko da.

Era berean, lanpostu bat aldi baterako betetzeko ordezkapen-kontratuak sinatu ahal izango dira lanpostu hori behin betiko betetzeko hautaketa-prozesua amaitu arte, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalen arabera eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritako baldintzetan".

Langile laboral publikoaren kontratazioak Oinarrizko Estatutuaren 11. artikuluko printzipioak bete behar ditu: berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publizitatea; aldi baterako kontratazioak, gainera, premia eta beharrizan justifikatuari erantzun behar dio.

Premiazko eta atzeraezinezko beharrizana du Oñatiko Udalak zerbitzu egoki bat bermatzeko, langileak lanpostua utzi eta berau arauzko eran hornitu bitartean. Hain zuzen ere, egoera horrek dakar hutsik geratutako lanpostu baten aldi baterako lan-kontratu hau izapidetu beharra, behin betiko estaldurarako hautaketa-prozesua egiten den bitartean.

Proposamena:

Hautagaien balorazioaren hurrenkeraren arabera, 2026ko urriaren 13tik aurrera (barne), Irati Olano Peón (NAN: ****885**) izendatzea eta kontratzea aldi baterako Euskaltegiko irakasle (C1) % 100eko lanaldiarekin, langile laboral gisa eta plaza OPE bidez behin betiko bete arte.

Halaber, langileak 15 eguneko probaldia izatea proposatu da, lanerako gaitasuna duela egiaztatzeko.

Jasota dago kreditu nahikoa dagoela."

Goiko txostenak dioena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkate naizenez, legeak eman dizkidan eskumenak erabilita, **erabaki dut:**

Lehenengoa.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, plaza hutsik dagoen bitartean, udal euskaltegiko irakaslearen (C1) lanpostua aldi baterako betetzea, onartu eta baztertuen eta merezimenduen behin betiko zerrendan hautagaiek eskuratutako hurrenkeran aukeratuz. Salbuespenezko arrazoiak daudelako eta udal honen premiazko behar atzeraezinei erantzuteko da beharrezkoa izendapena egitea (besteak beste, ikasturtea hasita dago, taldeak osatuta daude, ikasleak zain daude eta Eusko Jaurlaritzari eman behar zaio behin betiko osaeraren berri, eta horretarako ezinbestekoa da irakaslea izatea). Hileko soldata gordina postuari dagokiona izango da.

Bigarrena.- Hutsik geratutako lanpostua behin betikoz estaltzeko hautaketa-prozesua egin bitartean, udal euskaltegiko irakaslearen (C1) lanpostua betetzeko langile laboral bat izendatzea eta berarekin lan-kontratua sinatzea.

Hirugarrena.- Urriaren 23ko 2/2015 legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikuluan eta 2720/1998 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera (Bitarteko kontratua, lanpostu huts batengatik), lanpostua hutsik dagoen bitartean, 2026ko urriaren 13tik aurrera (barne), Irati Olano Peón (NAN: ****885**) izendatzea eta kontratzea aldi baterako euskaltegiko irakasle (C1) % 100eko lanaldiarekin, langile laboral gisa eta plaza OPE bidez behin betiko bete arte.

Laugarrena.- Lanpostuari dagozkion ordainsariak jasotzea.

Bosgarrena.- Langileari 15 eguneko probaldia ezartzea, lanerako gaitasuna duela egiaztatzeko.

Seigarrena.- Nolanahi ere, Administrazioak ofizioz formalizatuko du lan-harremanaren amaiera, legeria aplikagarrian aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, honako arrazoi hauengatik ere bai, eta ez du konpentsaziorako eskubiderik izango:

A) Karrerako funtzionarioek lanpostua arauzko eran betetzeagatik, legez ezarritako edozein prozeduraren bidez.
B) Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea dakarten antolaketa-arrazoiengatik.
C) Izendapenean berariaz jasotako epe baimendua amaitzeagatik.
D) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzeagatik.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau interesdunari, Kontu-hartzailetzari eta Giza Baliabide sailari jakinaraztea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan, hau sinatu dut.

Oñatin, 2026ko urriaren 13an

Alkatea

OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui